

Kooperazioaren ontologia erlazionala

XXI. mendeko filosofiaren eta zientziaren ikuspegi erlazional eta prozesualetik, esentzia finko edo kategoria unibertsialetatik harago, gauzak eta bizidunak harreman sareetan osatzen dira; ezagutza bera ere tesuinguruaren eta konparazioaren bidez eraikitzen da. Erlazioen metafisikak eraldatu egiten du lehen ezaugarri intrintsekoz osaturik ulertzen zen munduaren ikuspegia. Zientzietan ere, izan fisika kuantikoan edo biologian, kontuan hartzen dira erlazioek egiturak baldintzatzeko duten ahalmena; are nabarmenago ikuspegi soziopolitikoa eskatzen duten eremuetan, hala nola kontserbazio biologian, feminismoan edo medikuntzan. Antropologian, Marilyn Strathernen arabera, pertsonak ez dira berezko eta autonomoak; identitateak eta esanahiak harremanen bidez sortzen dira, ez aurrez existitzen diren entitateen arteko loturen bidez. Karen Barad filosofo eta fisikariak intra-akzio kontzeptuarekin adierazten du biraketa hori: erlazioen konfigurazio zehatzek baldintzatzen dute agenteak eta fenomenoak nola eratzen diren, eta ez alderantziz.

Joxe Azurmendi filosofo, idazle eta poetaren lanek ikuspegi erlazionala hartu zuten hainbat gairen inguruan, eta erlazioak, tartean kooperazioa zein gatazka, haren interesen ardatz nagusietakoak izan ziren. Horren adibide da doktorego tesia kooperatibismoari eskaini izana, Arizmendiarrietaren pentsamendua filosofia pertsonalista eta existentzialistatik abiatuta aztertuz. Bereziki, tokian tokiko arazoei erreparatu zien Azurmendik, hausnarketa eta zaintza behar dituzten horiei helduz. *Karlos Santamariaren pentsamendua* (2013) entseguan aipatzen duen moduan, Simone Weilen *enracinement* ideiarekin bat egingo luke horrek: sustraitzea gizakiaren funtsezko beharra da, tokiarekin, komunitatearekin, kulturarekin eta historiaren jarraitutasunarekin lotura izatea.

Subjektuaren ideia bera ere birplanteatzera bultzatzen du ildo horrek: Mendebaldeko pentsamenduak banako autonomo eta razionalaren *fan-*

tasia eraiki du, eta, horren ondorioz, elkarrekikotasuna, dependentzia eta zaurgarritasuna ikusezin bihurtu dira. Baina, Azurmendiren arabera, gizakia ez da arrazoimen hutsa; gorputza ere bada, eta barre zein negar egiteko gaitasuna duen bizidun konplexua: abere sinbolikoa, jolasia, sortzailea. Hiru liburu idatzi zituen gizabere kontzeptuaren inguruan (*Gizona abere hutsa da*, 1975; *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, 1991; *Gizabere kooperatiboaz*, 2016), baina beste lan batzuetan ere erabili zuen ideia hori, esaterako, *Azken egunak Gandiagarekin* (2009) liburu apartan. Horren bidez, gizakiaren animalia izaera, erlazioetan korapilatua, azpimarratzen da. Abel artzaina ere ageri da *Teknikaren meditazioa* (1998) lanean eta gizabereari buruzko beste testu batzuetan: Abelen irudia gizakiaren irudi gisa aurkezten du, teknikaren logikaz gaindikoa.

Gizabere kooperatiboaz (2016) lanean, elkarlaguntza ez da agindu moral soil bat, baizik eta naturaren ikerketa zientifikoek frogatutako egitate biologikoa ere bada. Darwinismo klasikoaren narrazio lehiakorrari aurka eginez, Kropotkin bezalako egileen ildotik abiatu zen, elkarlana ere eboluzioaren eta bizitzaren egituraren ulermenerako funtsezkoa dela esateko. Gene berekoiaren teoriak kooperazioa interes propioaren estrategiara mugatzen badu ere, Azurmendiren hausnarketak ikuspegi indibidualista hori zalantzan jartzen du. Ideia horiek Lynn Margulisen holobiontearen kontzeptuarekin ere lot daitezke, erakusten baitute interdependentziak direla bizitzaren oinarria.

Bestalde, krisiaren ideia ere ardatz nagusi izan da haren lanean; izan ere, prozesuen metafisika baten baitan ezer ez da aldaezina, eta krisialdiek aldaketa sakonak eragiteko aukera ematen dute. Ontologia erlazional horretatik begiratuta, gizaberea berez da besteekin eta inguruarekin loturiko izakia, gatazkan zein kooperazioan; eta horrek, norberaren ulermenaz gain, zaintza eta naturarekiko pentsamendua eta praktikak ere birpentsarazten ditu.